

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Hizkuntzak irakasteko online izango den plataforma bat sortuko dugu. Hasiera batean 8 hizkuntza ikasteko aukera emango dugu: gaztelania, euskara, ingelesa, frantsesa, alemana, portugaleria eta txinatarra. Askotan nahiko aspergarria egiten denez testak egin eta egin aritzea metodo berri bat asmatu dugu. Plataformaren erabiltzaileek lehenik eta behin azalpen teorikoak jasoko dituzte. Bideoen bitartez izango diren azalpen laburrak, argiak eta zehatzak izango dira. Ostean, oraintsu ikasitako praktikan jarriko du test moduko ariketen bitartez. Dena den, aintzat hartu beharra dago hizkuntza bat ez dela soilik paper baten edo pantaila baten gainean ikasten eta ezinbestekoa dela komunikazioa, bereziki, ahozko komunikazioa. Hori dela eta, sortutako aplikazioak bertako hizkuntza ama-hizkuntzatzat dutenekin harremanean jartzeko aukera ematen du.

Gure aplikazioa zahar-etxe bateko aiton-amonekin konektatuta egongo da eta hizkuntza ikasten ari den erabiltzaileak bertakoekin hitz egiteko aukera izango du. Kontuan izanik hizkuntza bat ikasteko zailtasunak zeintzuk diren, elkarriketen ikasketa-fasea azaldutako kontzeptuen %40 barneratuta izatean hasiko da. Dena dela, egoitza desberdinetako pertsonak ez dira izango proiektuan parte hartuko duten bakarrak. Honez gain, elkarriketaren grabaketa plataforman izenpetuta dagoen pertsona bakoitzaren profil pribatu batean gordeko dira irakasle batek akatsak zuzendu ahal izateko.

Halaber, plataforma aurrera eramateko pertsona gehiago egon daitezen, ikasleak direnen aiton-amonei parte hartzeko eskainiko zaie. Eta, zergatik aiton-amonak? Ba, adinduenek hizkuntza puruena eta garbiena jasotzen dutelako eta haiek egun galdua dauden esamoldeak zein atsotitzak ezagutzen eta erabiltzen dituztelako. Bestalde, sortutako plataforma online honek gazte eta helduen arteko esperientzia elkartrukea zein herrialde desberdinetako biztanlearen arteko kultura elkartrukea sustatu eta ahaleginduko du. Honekin bukatzeko, oso abantaila positiboa da adineko pertsonaren ongizate psikologikoarentzat; izan ere, zahar-egoitzetan bizi diren pertsona batzuk ez dute harreman sakona edukitzen kanpoaldearekin.